

Aurresku Txapelketa



Información:

KULTUR LEIOA

Tfno.: 94 607.25.78

Fax.: 94 607.25.79

José Ramón Aketxe Plaza, 11

48940 LEIOA (Bizkaia)

BIZKAIKO LXII. AURRESKU TXAPELKETA

XV. EMAKUMEZKOEN AURRESKU TXAPELKETA

LXII. CAMPEONATO DE AURRESKU DE BIZKAIA

XV. CAMPEONATO DE AURRESKU FEMENINO

Leioa Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak, Txikiak Txiki eta Gure Ohiturak herriko dantza taldeekin batera, Bizkaiko Aurresku Txapelketaren 62. edizioan parte hartzeraz gonbidatzen zaituzte. Hona hemen lehiaketaren oinarriak:

1. Txapelketa Ondiz-en egingo da, irailaren 8 an, igandea, arratsaldeko 7etan.
2. Lehiaketak bi modalitate izango ditu: Emakumezkoen Aurreskua eta Gizonezkoen Aurreskua
3. Aurreskua dantzatzeko duten neska-mutilek parte hartu ahal izango dute eta horretarako baldintza bakarra ohiturak agintzen duen bezala jantzita joatea izango da.
4. Aurreskulariek aurreskuaren lau zati dantzatu beharko dute, parte hartzaile guztiek dantzatu ondoren, eta puntu guztiak batu eta gero, epaimahaiaren erabakia jakinaraziko da.
5. Maila bakarra ezarri da modalitate bakoitzerako.
6. Izena posta bidez eman ahal izango da (honekin batera bidaltzen dugun izen fitxa bete ondoren edo bestela honako datu hauek agertzen diren agiria bidali beharko da: izena eta abizena, helbidea, telefono zenbakia eta zein dantza taldeko kidea den) baita posta elektronikoz ere. Lehiaketa egunean bertan ere eman ahal izango da izena Ondizen, 17etatik 18etara.

7. Ekitaldian zein ordena jarraituko den erabakitzeke zozketa egingo da, arratsaldeko 18:30etik aurrera.

8. Euskal Herriko musika eta dantzekin harremana duten lagunek osatuko dute epaimahaia eta aurresku dantzari bakoitzari puntuak emateko honako hauek hartuko dituzte kontuan: bizkortasuna, konpasa edo erritmoa, nola punteatzen duten edo zein urrats jarraitzen duten eta aurkezpena edo jantziak. Parte hartzaileak lortu duen puntuazioa altuena eta baxuena alde batera utzi eta gainerako puntuak artean batuz bestekoa egitetik aterako da. Leioako Udaleko Kultura teknikari bat izango da idazkari eta berak egingo du lehiaketaren akta.

9. Epaimahaiak estiloa, erritmoa eta Bizkaiko dantza-pausuak kontutan hartuko ditu.

10. Epaimahaiak erabakitakoari ezin izango zaio aurka egin eta oinarri hauen gaineko zalantzaren bat izanez gero edo lehiaketan ustekaberen bat gertatuz gero, gaizki ulertze edo ustekabe horien gainean epaimahaiak erabakia hartuko du. Epaimahaiaren irizpidea izango da une oro kontuan hartuko dena.

11. Bi kategorietarako ondoko sari hauek ezarri dira. Beren beregi adierazi da parte hartzaile bakar batek ere ezin izango dituela bi sari jaso:

EMAKUMEZKOEN MODALITATEA:

NAGUSIEN MAILA:

1. saria: 450 €, garaikurra eta zapia
2. saria: 300 € eta garaikurra.
3. saria: 150 € eta garaikurra.

GIZONEZKOEN MODALITATEA

NAGUSIEN MAILA:

1. saria: 450 €, garaikurra eta txapela.
2. saria: 300 € eta garaikurra.
3. saria: 150 € eta garaikurra.

Modalitate bakoitzean saririk jaso ez duen Leioako aurresku-dantzari hoberenarentzat: "Leioako Udala" sari berezia.

Aurreskulari guztiek 50 € jasoko dute, dieta moduan.

12. Lehiaketan gerta daitezkeen ustekabeak direla eta, edo lehiaketaren beharriak direla eta antolatzaileek lehiaketaren egitura aldatzeko eskubidea izango dute. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso osorik onartzea esan nahi du.

Izenemateko orria

Izen-abizenak

Helbidea

Herria

P.K.

Tel.

e-mail

Jaiotze data

Emakumezkoen modalitatea

Sinadura

Gizonezkoen modalitatea